



ITURENGO UDALA

2015eko BESTETARAKO KARTEL LEHIAKETA

2015eko bestetan erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatzen du Iturengo udalak.

OINARRIAK:

16 urtetik gorako edozeinek parte hartu dezake.

Gaia irekia izanen da eta lan orijinala behar du izan. Beti ere, Ituren edo/eta bere izaera edo kulturaren ezaugarriak agertzea baloratuko da.

Formatua eta teknika: lanak A3 tamainan inprimatuko dira (29'7 x 42zm.) eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira, 240 gutxienezko erresoluzioaz. Teknika irekia.

Leloa: **Iturengo Bestak 2015 Uztailak 17-20** (beti ere gero programa zehatza itxekitzeko tokia uztea kontuan izan beharko du egileak).

Aurkezteko epea: 2015eko ekainaren 16a, asteartea, eguerdiko 12'00ak arte honako helbidean: udala@ituren.es edo udaletxean bertan. Pertsona bakoitzak lan bakar bat aurkeztu dezake. Lana sinatu gabe entregatuko da eta lanarekin batera sobre itxi batean egilearen izen abizenak eta kontakturako telefonoa edo/eta posta elektronikoa agertu behar dira.

Irabazleak 100 euro irabaziko ditu eta lanaren jabetasuna Udalaren esku geldituko da. Aurkezturiko bertze lan guztien jabetasuna udalaren esku geldituko da eta egileak ez du jabetasun hori erreklamatzeko eskubiderik izango, hilabeteko epean eskatzen ez badu behintzat.

Lehiaketan parte hartzen duten guztiek oinarri hauek bere osotasunean onartzen dituzte.

Lan guztiak jaso ondoren erakusketa publikoa egingo da eta herritarrek erabakiko dute zein izango den kartel irabazlea. Edozein zalantzaren aurrean, udalak izango luke azken erabakia hartzeko eskubidea.

Iturenen, 2015eko maiatzaren 25ean